



ERRETIRO AURRERATURAKO PRIMEI BURUZKO ZIRKULARRA

Zenbait udalek kontsulta egin diote EUEDELi, instituzioko enplegatu publikoei dagokienez **adinagatiko borondatezko erretiroa eta erretiro aurreratua hartzeko prima arautzen duten UDALHITZen 95. artikulua eta hurrengo estaldura juridikoari** buruz; horri dagokionez, ondorio horretarako **TXOSTEN JURIDIKO** bat prestatu da.

Hauek dira txostenaren **ondorio nagusiak**:

- **LEHENENGOA.- ESTALDURA JURIDIKOA**

UDALHITZ Akordio Erregulatzaileraren 95. eta 96. artikuluetan adinagatiko borondatezko erretiroari eta erretiro aurreraturako primei buruz jasotako erregulazioak **beharrezkoa den estaldura juridikoa dauka, araudi autonomiko zein estatalean sartzen baita.**

- **BIGARRENA.- GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PLANA IZATEKO BEHARRA**

UDALHITZ Akordio Erregulatzaileraren arabera, prima hauek “asistentzia-hobekuntzak” Tituluan erregulatuta daude, **eta giza baliabideen arrazionalizazio plan baten helburuaren eta markoaren barruan jaso behar dira; horrenbestez, udalentzat ezinbestekoa da planifikazio tresna hau izatea.**

Neurri honen izaera asistentziala aintzat hartuz, erretiroa aurreratzearen ondorioz pentsioaren % 100 lortzen ez duten langileentzat bakarrik ezar daitekeela ulertzen da.

CIRCULAR PRIMAS DE JUBILACIÓN ANTICIPADA

En relación con las consultas formuladas a EUEDEL por parte de varios Ayuntamientos sobre **la cobertura jurídica de los artículos 95 y ss. de UDALHITZ que regulan la Jubilación Voluntaria por edad y las primas para la jubilación anticipada** para el personal empleado público de la institución, se ha elaborado un **INFORME JURÍDICO** al efecto.

Las **principales conclusiones** del Informe son las siguientes:

- **PRIMERO.-COBERTURA JURÍDICA**

La regulación recogida en el *Acuerdo Regulator UDALHITZ* en los artículos 95 y 96 sobre la jubilación voluntaria por edad y las primas para la jubilación anticipada, **cuentan con la necesaria cobertura jurídica, debido a su encaje tanto en la normativa autonómica como estatal.**

- **SEGUNDO.-NECESIDAD DE CONTAR CON UN PLAN DE RACIONALIZACIÓN DE RECURSOS HUMANOS**

Conforme se dispone en el Acuerdo Regulator UDALHITZ, estas primas están reguladas en el Título correspondiente a “mejoras asistenciales”, y **deben estar recogidas con el objetivo y en el marco de un plan de racionalización de recursos humanos, de tal manera que resulta indispensable que los Ayuntamientos cuenten con este instrumento de planificación.**

Atendiendo al carácter asistencial de esta medida, se entiende que sólo resultaría de aplicación al personal que con motivo del adelanto de jubilación no alcancen el 100% de la pensión.

- **HIRUGARRENA.- ARRAZIONALIZAZIO PLANAREN EDUKIAK**

Gaur egun dagokion Arrazionalizazio Planik ez duten udalek artikulatu egin beharko dute, euren berezitasun eta beharren arabera. Bestiak beste, **ondorengo edukiak** barne hartu ahalko dituzte: 1.- ezarpen eremua; 2.- indarraldia; 3.- hartu beharreko neurriak; 4.- gutxieneko irizpideak edota erakundearen gutxieneko antzintasuna; 5.- bateraezintasunak - Ad.: Udaltzaingoen kolektiboa, 1449/2018 EDri jarraiki, erretirorako adina murrizteko koefizienteari buruzkoa...; 6.- administrazio prozedura; 7.- aurrekontu erabilgarritasuna.

Langileen ordezkariarekin Arrazionalizazio Plana negoziatzeko beharra gogorazi da.

- **TERCERO.- CONTENIDOS DEL PLAN DE RACIONALIZACIÓN**

Para aquellos Ayuntamientos que carezcan a fecha de hoy del correspondiente Plan de Racionalización, deberán, en función de sus especificidades y necesidades, articularlo, pudiendo recoger, entre otros, los **siguientes contenidos**: 1.- ámbito aplicación; 2.- vigencia temporal; 3.- medidas a adoptar; 4.- requisitos mínimos y/o antigüedad mínima en la institución; 5.- incompatibilidades-ej: Colectivo de Policía Local acogido al RD 1449/2018 de coeficiente reductor de la edad de jubilación...-; 6.- procedimiento administrativo; 7.- disponibilidad presupuestaria.

Se recuerda la necesidad de negociación del Plan de Racionalización con la representación de las personas trabajadoras.

Bilbon, 2019ko abenduaren 13an

EUDEL
EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCO

Tel. 94 423 15 00 eudel@eudel.eus www.eudel.eus
Ercilla, 13 (48009 Bilbao)